

## **UZTALAI udaleku irekiak– 2023**

### **OINARRIAK ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK**

#### **1. Jardueraren helburua, datak eta ordutegia**

1.1. Helburu nagusia: euskaraz bizi, jolas egin eta gozatu.

Beste helburu batzuk: bestelako balioak landu: tratu ona, emozioak, natura, parte hartzea, aniztasuna, autonomia,.....

Hori guztia, jolasa oinarri hartuta.

1.2. Datak: 2023ko uztailaren 3tik 21era.

1.3. Ordutegia: 09:30etik 12:30era.

#### **2. Nork har dezake parte?**

2013 eta 2020 urteen artean jaiotako haurrek har dezakete parte:

- HH-2 eta HH-3 (2020 eta 2019an jaiotakoak), zaintza hezitzailea. Geletan egongo dira, Laubideko hexagonoan (Domingo Agirre eskola) lehenengoak eta Haztegi ikastolako eraikin nagusian bigarrenak.
- HH-4tik LH-4ra (2018, 2017, 2016, 2015, 2014 eta 2013an jaiotakoak), aire librea egongo dira, osatuko diren haur-taldean arabera erabakiko diren guneeetan.

**Oharra:** osatuko den talde-kopuruaren arabera, azken orduko aldaketak egon daitezke kokalekuei dagokienez. Hala bada, horren berri emango zaiei familiei udalekuak hasi baino lehen.

#### **3. Izen-ematea**

2023ko maiatzaren 8tik 21era.

Izen-ematea online egingo da helbide honetan:

<https://udalekuak.legazpi.eus>

Izen-ematea online egiteko baleko helbide elektronikoa bat izan behar da. Galdetegia bete ondoren, helbide horretan berehala jasoko da mezu bat eta emandako datuekin osatutako izen-emate orria jasoko da. Dokumentu hori inprimatu, sinatu eta Herritarrentzako Arreta Bulegoan aurkeztu beharko da **maiatzaren 26rako**.

Internet bidez egindako izen-emateek ez dute balio ez bada dokumentua sinatuta entregatzen.

Bestalde, izen-ematea aurrez aurre egin daiteke HAZen.

#### **4. Plazak eta taldeak**

Eskaintza udalerrian eskolatutako HH-2 eta LH-4. maila arteko haurrei dago zuzenduta.



**LEGAZPIKO  
UDALA**



Hasiera batean, eta justifikatutako arrazoiengatik bestelakorik erabakitzen ez bada, epe barruan izena emandako haur guztiak onartuko dira.

Taldeko haur-kopuruei dagokienez:

- HH-2 eta HH-3: 10 haur.
- HH-4 eta HH-5: 12/14 haur.
- LH: 14/16 haur.

Taldeek ezaugarri hauek izango dituzte:

- Talde bakoitzak begirale bat izango du.
- Talde bakoitzak gunee bat izango du esleituta.
- Begiraleen koordinazio- eta udalekuen zuzendaritza-lanak egingo dituen arduradun bat egongo da, begiraleen lana eta aktibitate guztiak koordinatzeko.

Epez kanpo ez dira haur gehiago onartuko. Soilik dagokion taldean tokia baldin badago onartuko da epez kanpo datorrena.

Salbuespenez ere, Legazpin bizi diren senitarteko baten etxera uztailean datozen adin horretako haurrak onartu ahalko dira baina haurrek euskaraz ongi dakitenean soilik, euskara baita udalekuaren hizkuntza.

## **5. Matrikularen prezioa**

- |                           |         |
|---------------------------|---------|
| - Seme-alaba bakarra:     | 70,00 € |
| - Bigarrena:              | 44,80 € |
| - Hirugarrenetik aurrera: | doan    |

Udalekua hasiko den egunean dagokion tasa kobratzeko ordainagiriak bidaliko dira bankuetxeetara eta ondoren umeren batek udalekuetara etortzeari uzten badio, ez da matrikularen prezioa itzuliko.

## **6. Udalekuen gaineko informazioa**

Legazpiko Udalak webgune berri bat sortu du, bertan udaleku irekien gaineko informazioa emateko: informazio orokorra, epeak, tasak, taldeak, begiraleak, ekintzak,.....

Helbidea: <https://udalekuak.legazpi.eus>

## **7. WhatsApp-a**

Udaleku irekien zehar guraso edo tutoreei bidali beharreko abisu guztiak, Whatsapp bidez bidaliko dira.

Mezuak Whatsapp-eko banaketa-taldean bidez igorriko dira eta horretarako taldeak osatu behar dira. Taldeak osatzea lan handia denez, Udalak izen-ematen emandako lehenengo telefono-zenbakia erabiliko du haur bakoitzeko. Justifikatutako arrazoiengatik soilik (zaintza partekatua adibidez) sartu ahal izango da bigarren telefono-zenbaki bat.

Gurasoek eta tutoreek mezuak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da haien telefonoaren agendan udalekuetako zenbakia gordeta izatea. Aurtengo zenbakia udalekua hasi baino astebete lehenago jakinaraziko zaie familia guztiei.

## **8. Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa**

Haurren uda ikastaroan izen-emateko eman dituzun datuak LEGAZPIKO UDALAREN titularitate eta erantzukizuneko fitxategi batean sartuko dira, Datu pertsonalak babestearen gaineko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta datuak babesteko euskal bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko Legea betetze aldera.

Udal kudeaketak bere eskumenen alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horren xedea eta baita Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak egoki ematea ere, ondoren historia, estatistika edo zientzia xedeetarako erabiliko direnaren kalterik gabe; beti ere, ezartzekoa den legegintza betez.

Edozelan ere, eskaria izenpetzean eskatzailea informatuta dagoela ulertuko da. Modu berean, esandako xedeetarako eta Legean jasotako helburuetarako bere datuak erabiltzeko oniritzia ematen duela ulertuko da.

Gogoan izan eskaintako datuetara sarbidea duzula eta datuak zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubidea duzula, Legean ezarritakoaren arabera betiere. Horretarako, eskaera aurkez dezakezu udaletxean honako datuak adieraziz: izen-deiturak, jakinarazpenetarako helbidea, eskaera zehatza, eguna, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena. Eskaera hori honako helbidera bidaliko da: Euskal Herria plaza 1. 20230 Legazpi.

Erosoagoa egiten bazaizu, eskubide horiek Udalaren web orriaren bidez erabil ditzakezu helbide honetan: [www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus).

Halaber, "Datu Pertsonalen Babesaren arloko jardunbide Egokien Eskuliburua EAEko toki erakundeetarako" izeneko gidaliburua kontsulta dezakezu interneteko helbide hauetan: [www.eudel.eus](http://www.eudel.eus) eta [www.avpd.es](http://www.avpd.es).

## **9. Ekintzak**

Adinaren arabera, baliteke udalekuetan irteeraren bat antolatzea. Hori dela eta, haurren guraso edo tutoreek,

- baimena ematen dute antolatutako irteera egiteko erakundeak egokitzat jotzen duen garraio-bidea (trena, autobusa, bizikleta,..) erabiltzeko. Irteera dagoen egunetan ez dago beste zerbitzurik; beraz, baimena ematen ez dutenak etxean geratuko dira.
- baimena ematen die begiraleei, irteeran larrialdiren bat egonez gero, haurra auto pribatuan eramateko, begiraleak edozein erantzukizunetik salbuetsiz.

## **10. Osasun kontuak**

Unean uneko segurtasun eta higiene irizpideak aintzat hartuko ditu Udalak eta, une oro, osasun agintariek ezarritako neurriak beteko ditu.